

**Burdin Aroko megalitoak nagusi diren gunea, mendi lerroko gunerik garaienetan dauden 47 harrespilek erakusten duten bezala; honez gain, bertze 7 zutarri. Beherago, Abartango mendi magaletan, Eneolitiko-Brontze Aroko 4 trikuharri agertzen dira.**

Sector con predominio de megalitos de la Edad del Hierro, como lo demuestran los 47 cromlechs ubicados en los puntos más altos de los cordales; además, otros 7 menhires. Más abajo, en las laderas de Abartan, se encuentran 4 dólmenes de la Edad del Eneolítico-Bronce.

**ABARTAN (IZKOA) HARRESPILAK (9) CROMLECHS.**

532-540

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Ziga.

**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2° 07' 32", Lati. 43° 05' 43".

**Goi** / Altitud : 918 m.

**Aroa** / Epoca : Burdin Aroa. Edad del Hierro.

**Deskribapena:** 9 harrespilez osatu multzoa da, Iparmendebalderuntz lerrokaturik.

**Harri mota** : Hareazkoak.

**Egoera:** Txarra. Haundienari, I.lari alegia, biribilaren erdia falta zaio eta IIIeko harri batzuk ateriak, etzanik agertzen dira. II ren gainera, aspalditik, 4x4 orotariko autoak pasatzen dira. Hala ere, oraino izan zuen haunditasun apur bat erakusten du.

**Kokapena:** Abartango mendiko Ipar sortaldean dagoen Izkoa (edo Urdintz) izeneko munoan. Leku garbia, ez da zuhaitzik, ez eta inarririk ere. Urlegiko haitza, Sartalderuntz eta 300 metrora dago.

**Historia:** 1972an Aita Ondarrak I, II eta III aurkitu zituen. Luis Millanek IV 1982an. Pedro Arresek eta Josu Cabodevillak V, VI, VII, VIII eta IX 2004ean. Ez da indusketarik ezagutzen.

**Descripción** : Conjunto de 9 círculos de piedras alineados hacia el Noroeste.

**Material** : Areniscas.

**Estado** : Malo. Al mayor, el I, le falta la mitad de ortostatos, al III le han sacado algunos y hoy están tumbados. Por encima del II pasan desde hace tiempo vehículos 4x4 todoterreno. A pesar de todo se ve un conjunto bello.

**Ubicación** : Se encuentran en una colina denominada Izkoa que hay al Noreste de Abartan, en algunos mapas la hemos visto con el nombre de Urdintz. Al Oeste, a 300 mt, están las peñas de Urlegi.

**Historia:** El I, II y III los vió el Aita Ondarra en 1972; el IV Luis Millan en 1982. Pedro Arrese y Josu Cabodevilla el V, VI, VII y VIII en el 2004. No se conoce excavación legal.

**Bibliografía** :

Ondarra F. Nuevos monume...1975.

Vegas Aramburu J.I. Estudios de arqueol....1988.

Ripa P. Monumentos meg.....1990.

**Abartan I. harrespila – cromlech****532**

**Harrespilaren mukuru biribila, 9 m. diametro eta 0,30 m. garai da. Erdian ez da sakongunerik agertzen. Ingurua 23 harririk eratzen dute, Iparraldeko eta Ipar sartaldeko harriak, 0,50 m. garai dira. Bertze bi 0,85 m. luze dira. Hegoaldeko harri gehienak galduak ditu edo lur gainean ez dira agertzen. Sartaldeko harririk haundiena bertzeeterik ezberdina da, margoz eta motaz ere. Gainera erran behar da, Urdintz zutarriaren aurkian agertzen dela, biak elkarri begira.**

Círculo de 9 metros de diametro y 0,30 de altura en su túmulo. No se ve cavidad central. Rodeado por 23 piedras, siendo las del Norte y Noroeste de 0,50 metros de alto. Otras dos de 0,85 de largo. Tiene perdidas la mayor parte de las piedras del Sur. El ortostato mayor de la parte Oeste es diferente a los demás en color y en tipo de piedra. Hay que decir que se halla mirando de frente al menhir de Urdintz.

**Abartan II. harrespila - cromlech****533**

**Harrespila 6 m. diametroa eta 8 harriz osaturik. Ipar mendebaldeko harri bat hagitz makurtua dago, ia etzanik, barneko aldera 0,64 m. luze eta 0,12 m. lodi da. Hegoladeko harria, lurrean etzana, 0,80 m. luze eta 0,32 m. zabal da. Mukurua, 0,20 / 0,30 garai da, erdian sakongune bat ikusten da. Sartaldeko harriak galduak ditu eta Hegoaldeko batzuk ere bai. I-arekin bat eginen zukeela iduri du.**

Círculo de 6 metros de diámetro formado por 8 piedras a la vista. La del Noroeste muy inclinada hacia el interior, mide 0,64 metros de largo y 0,12 de grosor. Tumbada, al Sur, una de 0,83 de largo y 0,32 de ancho. El túmulo es de 0,20/ 0,30 de alto viéndose en su centro una cavidad. Tiene perdidas las piedras del Este y algunas del Sur. Parece que se juntara con el I.

**Abartan III. harrespila - cromlech****534**

**Biribila lur gainetik guti agertzen diren 9 harririk txiki osatzen dute. Iparreko eta Hegosartaldeko harriak galduak ditu. Harri bat lur gainean etzanik agertzen da, 0,80 m. luze, 0,43 zabal eta 0,10 lodi dela. Erdian sakongune bat ba dago. II harrespiletik 3 metrora aurkitzen da, Iparsartaldera buruz.**

Formando este círculo aparecen 9 pequeñas piedras habiendo desaparecido o estando enterradas las de su parte Norte y Suroeste. Una está tumbada y mide 0,80 metros de largo, 0,43 de ancho y 0,10 de grosor. Se ve una concavidad central. Se encuentra a 3 metros al Noroeste del II.

**Abartan IV. harrespila – cromlech****535**

**III. etik metro betera ipar sartaldera buruz aurkitzen da. Harrespila 6,50 m. diametrokoa da; 20 harriz inguratutik, horietarik 4 etzanik daude, bertze 3 hagitz makurtuak. Haundiena 0,50 m. garai da. Ez da tumulurik ikusten.**

A un metro del III, hacia el Noroeste. Círculo de 6,50 metros de diámetro, formado por 20 piedras, 4 de las cuales se hallan tumbadas y otras 3 muy inclinadas. La mayor mide 0,50 metros de altura. No se aprecia túmulo.

**Abartan V. harrespila - cromlech****536**

**IV-tik metro gutira kokatua, Ipar Sartaldera. Harrespila 2,50 m. diametro da eta ez da mukururik ikusten. Biribila 6 harri txikiz osatua dago.**

A pocos metros del IV hacia el Noroeste. Círculo de 2,50 metros de diámetro, sin túmulo y formado por 6 pequeñas piedras a la vista.

<b>Abartan VI. harrespila – cromlech</b>	<b>537</b>
--	------------

**V-tik metro gutira. Harrespila 2 metro diametro da eta 4 harriz osaturik ikusten da egun. Biribiltasuna antzematen zaio.**

A pocos metros del V. Círculo de 2 metros de diámetro, formado por 4 piedras visibles. Se intuye la redondez.

<b>Abartan VII. harrespila – cromlech</b>	<b>538</b>
---	------------

**VI-tik IparMendebalderuntz, harrespilaren biribila 3 metro diámetro da eta 9 harriz osaturik ikusten da. Erdian bertze bat agertzen da.**

Al Noroeste del VI, círculo de 3 metros de diámetro formado por 9 piedras. Otra más se ve en su centro.

<b>Abartan VIII. harrespila – cromlech</b>	<b>539</b>
--	------------

**VII-tik IparMendebalderuntz, 3 harri soilik agertzen dira biribila den mukuru apalaren inguruan.**

Al Noroeste del VII, túmulo circular de poca altura que aparece rodeado por 3 piedras a la vista.

<b>Abartan IX. harrespila – cromlech</b>	<b>540</b>
--	------------

**Otea hasten den lekutik hurbilena. Biribila, 3 metro diametrokoa, 9 harrik osaturik agertzen da.**

Cercano al lugar donde comienza la argoma. Círculo de 3 metros de diámetro rodeado por 9 piedras.

<b>ELORREGI. HARRESPILAK (11) CROMLECHS.</b>	<b>520-530</b>
--	----------------

**Jabetza / Propiedad :** Baztan. Ziga.

**Goi / Altitud :** 901 m.

**Aroa / Epoca :** Burdin Aroa. Edad del Hierro.

**Deskribapena:** 11 harrespil lerrokaturik osaturiko multzoa.

**Harri mota :** Hareazkoak.

**Egoera:** Txarra. Orokorrean harri aunitz falta dira edo ez dira ageri. Adituek zalankotzat jotzen dituzte eta horregatik hemen bakarriak aipatu egiten dira, azalpen zehatzik gabe.

**Kokapena:** Elorregi edo Iturburuko lepoa eta magalean, Zigatik Abartan mendirako bidean.

**Historia:** Lopez Sellesek baten berri eman zuen 1975ean. I. Zabalzak bertze bi 2000an eta Pedro Arrese eta J. Cabodevilla gainontzekoak 2004an. Ez da indusketarik ezagutzen.

**Descripción :** Conjunto de 11 círculos de piedras alineados.

**Material :** Areniscas.

**Estado :** Malo. En general faltan muchas piedras o no aparecen. Los especialistas los dan por dudosos y por ello aquí sólo se mencionan, sin descripción precisa.

**Ubicación :** En el collado y ladera de Elorregi o Iturburu, en el camino de Ziga a Abartan.

**Historia:** Lopez Selles dio noticia de uno de ellos en 1975. En 2000 I. Zabalza descubre otros dos y el resto por P. Arrese y J. Cabodevilla en 2004. No se conoce excavación legal.

**Bibliografía :** Ondarra F. ...1988.

**URDINTZ ZUTARRIA - MENHIR.**

542

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Ziga.**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2° 07' 40", Lati. 43° 05' 37".**Goi** / Altitud : 890 m.**Aroa** / Epoca : Zehaztugabea. Sin determinar.

**Deskribapena** : Zutik dagoen monolitoa, 2,50 m. garai eta harlauza itxura duena. Harria 1,15 m. zabal oinarrian eta 0,90 m. goitiko aldean, eta 0,40/ 0,30 m. lodi da. Ardatz nagusiko orientazioa 46° da. Mendialdera makurturik agertzen da. Pisua, bataz bertze: 2.400 kg.

**Harri mota** : Bertako hareazkoa.**Egoera**: Ona. Seinalizatua.**Kokapena**: Urdintz mendiko mendebaldeko magalean, Zigatik Abartanerako bidetik ezkerrean.**Historia**: 1975eko Ekainaren 14an Tomas Lopez Sellesek aurkitua. Ez da indusketarik ezagutzen.

**Descripción**: Monolito inclinado de 2,50 metros de alto y apariencia de losa. La piedra tiene 1,15/ 0,90 de ancho y 0,40/ 0,30 de grosor. Orientación de su eje principal: 46°. Peso aproximado: 2.400 kilogramos.

**Material**: Arenisca.**Estado**: Bueno. Señalizado.**Ubicación**: En la ladera occidental del monte Urdintz, a la izquierda del camino a Abartan desde Ziga.**Historia**: Encontrado por Lopez Selles el 14 de Junio de 1975. No se conoce excavación.

Bibliografía :

Ondarra F. Nuevos monumentos meg....1976.

Barandiaran I. Prehistor.....1980.

Peñalver X. Menhires de E.H. 1983.

Ripa P. Monument....1990.

**SOATE TRIKUHARRIA - DOLMEN.**

543

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Ziga.**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2° 07' 54", Lati. 43° 05' 57".**Goi** / Altitud : 760 m.**Aroa** / Epoca : Eneolito. Brontze.

**Deskribapena**: Trikuharriko mukurua oso apalik dago, alde batean zerbait ikusten ahal da. Bertan, harlauza bat agertzen da, 30°tara orientaturik, eta 0,50 m. garai, 0,50/ 0,70 m. luze eta 0,14 m. lodi bataz beste. Hego sortaldean harri batzuk agertzen dira.

**Harri mota**: Bertako hareazkoak.**Egoera**: Hagitz Txarra. Seinalizatua egon zen, baina egun seinalea lurtean hautsirik dago. Izanen zuen itxuratik oso guti gelditzen zaio.**Kokapena**: Soateko lepoan, iralekuan, Zigatik Abartango mendirako bidetik eskuinean. Ondoan, istripuz hil zen Zigako gazte baten omenezko harlauza lanuda dago.**Historia**: Luis Millanek aurkitua 1982ko Apirilaren 25an. Ez da indusketarik ezagutzen.

**Descripción**: Túmulo muy rebajado en el que asoma una losa orientada a 30°, de 0,50 metros de alto, 0,50/ 0,70 de largo y 0,14 de grosor y orientada al Noreste. Se ven algunas piedras en su parte Sureste.

**Material**: Areniscas del lugar.

Estado: Mal estado. Estuvo señalizado. Le queda poco de lo que sería su presencia original.

Ubicación: En el collado de Soate, a la derecha del camino que sube de Ziga a Abartan. Al lado, una laja grabada, homenaje a un joven de Ziga fallecido en accidente de tráfico.

Historia: Encontrado por Luis Millan en 1982. No se conoce excavación legal.

Bibliografía :

Ondarra F. Nuevos monumentos megal....1988.

Ripa P. Monumentos megal....1990.

<b>SOROTA TRIKUHARRIA - DOLMEN.</b>	<b>544</b>
-------------------------------------	------------

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Ziga.

**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2° 08'10", Lati. 43° 06' 20".

**Goi** / Altitud : 647 m.

**Aroa** / Epoca : Eneolito. Brontze.

**Deskribapena**: Trikuharriaren harrizko mukurua 12 m. diametro eta 2,00 m. garai da; Sortaldetik apalagoa agertzen da. Erdian 5 m. diametro eta metro bat sakon den ziloa; bertan soilik harlauz zati bat gelditzen da zutik, 0,40 m. garai, 0,60 m. luze eta 0,12 m. lodi; 110° tara orientaturik dago. Ziuraski hegoaldeko harlauzaren zati bat izanen da.

**Harri mota**: Harri gehienak kareazkoak dira, hareazkoa den harlauza ezik .

**Egoera**: Garbia; seinalizatua. Luberri baten barrenean, burdin hesia hurbil. Hilgela desitxuratua.

**Kokapena**: Soroea izeneko lepoan dago, hango luberrian. Leku honi, joan den mendean "pilotasoro" ere deitzen zioten. Hala kontatu zioten Iruritako eta Zuraurreko artzainek Aita Ondarrari. Zigatik Abartan aldera doan bidetik eskuinean, leku garaien eta luberriaren barnean, hegoaldean.

**Historia**: 1972ko Ilbeltzaren 15ean, Aita Ondarrak aurkitu zuen. Ez da indusketarik ezagutzen.

Descripción : Dolmen con túmulo de piedras circular de 12 metros de diámetro y 2 de altura, más bajo en su parte Este. En su interior una gran cavidad de 5 metros de diámetro y uno de profundidad, en el que se puede ver una losa de 0,40 metros de alto, 0,60 de largo y 0,12 de grosor, orientada 110° al Sureste, seguramente, un pedazo de la losa del Sur.

**Material**: La losa es de arenisca, el resto son calizas del lugar.

**Estado**: Limpio y señalizado. Dentro de un prado cerrado, cerca de la alambrada. La cámara destrozada.

**Ubicación**: Se encuentra en el collado de su nombre, al que el pasado siglo también llamaban Pilotasoro, como le contaron los pastores de Irurita y Zuraurre al Aita Ondarra. Desde Ziga por el camino a Abartan y a la derecha, en el punto más alto y dentro de un prado cercado.

**Historia**: Encontrado por Aita Ondarra el 15 de Enero de 1972. No se conoce excavación legal.

Bibliografía :

Ondarra F. Nuevos monumentos meg...1975.

Barandiaran I. Prehistoria de...1980.

Ripa P. Monumentos mega....1990.